

Parke

EUSKADIKO
PARKE
TEKNOLOGIKOAK

Iruzurren aurka borrokatzeko konpromisoari buruz Parke Teknologiko sozietateek eginiko Erakunde Adierazpena, Europako Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoko fondoekin finantzaturako ekimenak gauzatzeko esparruan.

Parque Tecnológico - Teknologi Elkartegia SA, Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia SA eta Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA (aurrerantzean, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea edo Sozietateak) sozietateek, haien sail eta erakunde atxikien bidez, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) entitate instrumentalaren eginkizunak betetzen dituzte.

Eta, hala jasota gera dadin, adierazten dute arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duten konpromisoa eta beren jarduketetan oinarri dituzten osotasun-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzenekiko atxikimendua Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren Europako funtsen bidez finantzatuta egiten dituzten jarduketetara hedatzen da.

Haren zerbitzura dagoen pertsonalak, enplegatu, zuzendari eta administrazio-organoetako kide diren aldetik, konpromisoa du, besteak beste, «interes orokorrak bermatzeko, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez, eta objektibotasunaren, osotasunaren, neutraltasunaren, erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, konfidentzialtasunaren, zerbitzurako dedikazioaren, gardentasunaren, eredugarritasunaren, austeritatearen, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren, zintzotasunaren, kultura- eta ingurumen-ingurunearen sustapenaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren errespetuaren printzipioen arabera jardutea».

Sozietateetako pertsonak «Kode Etiko eta Gobernu On»ari atxikitzeke adierazpena egiten dute (hura Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko Kontseiluek onetsi dute, 2021eko abenduan), zeinak pertsonalarentzako legez ezarritako konpromiso eta balioak jasotzen baititu eta onartutako erantzukizunarekin zuzenean lotuta daudenak baitaude. Ez datza adierazpen-kode batean edo efektu errealik gabea; Kode hori betetzen ez bada, zehatu ahalko da, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, arau-hausleak urratu dituen erantzukizunak gorabehera.

Gainera, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko pertsona guztietara hedatzen dira printzipio etikoak eta jokabidekoak, Eusko Jaurlaritzak onetsitako Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoarekin lotuta, Erkidegoaren araudiarekin bat etorritik, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (BEEP) betearazteko entitate den

aldetik, kontuan hartuta Parkeen Sareak hari heldu diola Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) esparruan eginiko jarduketetarako.

Kasu guztietan, helburua da erakundearen barruan iruzurrezko jarduera oro saihestuko duen eta hura prebenitzeko eta antzemateko bide emango duen kultura sustatzea eta, horretarako, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorren garapena sustatzea.

Jarduketaren kasu zehatzean, BEEPeko entitate instrumental gisa, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea Eusko Jaurlaritzak, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) betearazpen-entitatea den aldetik, Erkidegoaren araudiarekin bat etorritik prestatutako neurrien planari atxiki zaio, iruzurren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatuko laguntzetako eta ingurumenari kalte esanguratsurik ez egiteko eskakizunak betetzeko, zeinak Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean ezartzen baitira.

Neurrien plan hori Sozietateen administrazio-kontseiluari bidali zaio Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren informaziorako eta segimendurako, erakunde-adierazpen honekin batera onesteko.

Plan horretan, dagoeneko dagoen esperientzia eta mekanismoak oso ongi aprobetxatzen dituela kontuan hartuta, iruzur-arriskua ebaluatzeko, prebenitzeko, erantzukizuneko arloetan barne-kontrolako sistema egokia dagoela ziurtatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, zuzenketa-neurriak ezartzean eginbide egokia bermatzeko prozesuak ezartzen dira.

Era berean, neurrien planak administrazio-baliabideak ezartzen ditu, konfidentzialtasunari eutsiz eta gai hau arautzen duten arauekin bat etorritik, antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatzeke, jakinarazpenetarako barne-kanalen bidez, eta, betiere, agintari arduradunarekin elkarlanean, kontrol-agintaritzarekin, bai eta Iruzurren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurraren Aurka Borrokatzeke Europako Bulegoarekin ere.